

## FUNTSEZKO ELKARKETAK:

Atal honetan negozio hornitzaile eta bazkide sarea deskribatzen dugu.

Eredu batek funtziona dezan beharrezkoak diren enpresak arrazoi desberdinengatik elkartzen dira. Elkarketa hauek geroz eta garrantzitsuagoak dira negozio eredu askorentzat.

Enpresek aliantzak sortzen dituzte beren negozio ereduak optimizatzeko, arriskuak murrizteko edo baliabideak lortzeko. Elkarketa hauek lau motetan sailkatu daitezke:

Enpresa ez-lehiakideen arteko aliantza estrategikoak, kooperazioa (enpresa lehiakideen arteko elkarketa estrategikoak), Joint venture-ak (enpresa elkartuak negozio berriak sortzeko) eta bezero-hornitzaile harremanak (hornikuntzen fidagarritasuna bermatzeko).

Gure enpresa elkarketa, enpresa ez-lehiakideen arteko aliantza izango da:

Enpresa ez-lehiakideen arteko aliantza estrategikoak: kasu honetan, hegazkinak eraikitzen dituzten enpresa izango litzake gure aliantza estrategikoa. Izan ere, enpresa elkarketa hau ezin bestekoa izango da gure proiektuko hegazkin hotela aurrera eramateko. Beste enpresaren rola, hegazkina eraikitzea izango da soilik. Horrela, guri ibilgailua pasatzean hau nahi dugun modura aldatu eta hobetzeaz arduratuko gara. Horrez gain, aipatzekoa da kontaktuan jarriko garen enpresa ez dela enpresa lehiakidea izango. Izan ere, enpresa horren helburua hegazkinak saltzea izango denez bientzako onurak ekarriko dizkigu elkarketak.



Horrez gain elkarketak sortzeko hiru arrazoi bereiz daitezke; optimizazioa eta eskala ekonomikoak, arrisku eta ezjakintasuna murrizteko eta zenbait jarduera burutu eta baliabideak erosteko:

Optimizazioa eta eskala ekonomiak: elkarketa mota oinarrizkoenaren edo bezero-hornitzaile harremanaren helburua baliabideen eta jardueren esleipenaren optimizazioa da. Gure kasuan ordea, ez ditugu horrelako elkarketa motarik izango.

Arrisku eta ezjakintasuna murrizteko: ezjakintasuna nagusi den ingurune lehiakorretan arriskuak murrizteko ere balio dezakete elkarketek. Gure kasuan ordea, hau ere ez da gertatuko. Izan ere, bilaketa asko egin ondoren egiaztatu dugu guk asmatutako proiektu honek momentuz ez dituela lehiakiderik. Ondorioz, asmatutako sektore honetan parte hartzen duen enpresa bakarra gurea izango da. Beraz, ez dugu beste enpresa lehiakor batekin elkartzeko beharrik izango (ez daudelako).

Zenbait jarduera burutu eta baliabideak erosteko: ez da ohikoa enpresa batek negozio ereduko jarduera zehatz guztiak egiteko baliabideak izatea. Hau esanda, guri dagokigunez, gure elkarketa bakar eta garrantzitsuena izango da hau; izan ere, gure proiektuaren ardatza hegazkina izango denez oso garrantzitsua baita beste enpresa batekin elkartuz honi ibilgailu hau erostea INEI enpresaren kostu finkoak murrizteko (gure ideia nagusia hegazkina guk nahi dugun modura moldatzea baita, ez guk sortzea).